



## **Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia**

### **MENDIA**

Mendi kirola parte-hartze jarduera da. Arabako Lurralde Historikoko udalerrien artean dagoen distantzia kontuan izanik, eta eskola ikasleen parte-hartzea erraztu nahian, hainbat eremutan banatu da Arabako Lurralde Historikoa: Gasteiz aldea, Aiara aldea, etab.; beraz, Eskola Kiroleko Kanpainan mendiko jardueretarako izena eman nahi duten ikasleek kasuan kasuan beren eremuan jarduerak antolatzen dituen erakunde laguntzailera jo behar dute.

#### **1.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK**

##### **GASTEIZ ALDEA**

Arabako Mendi Federazioa / Iturribero kluba (Vitoria-Gasteiz)

##### **LAUDIO ALDEA**

Arabako Mendi Federazioa / Goikogane Mendi taldea (Laudio)

##### **AMURRIO ALDEA**

Arabako Mendi Federazioa / Mendiko Lagunak Taldea (Amurrio)

#### **2.- IRTEERA BAKOITZERAKO IZENA EMATEA**

2.1 Pertsona bakoitzak irteera baterako izena emateko kuota 2 euro izango da. Euskara, Kultura eta Kirol Sailak irteeraren kostuaren gainerakoa emango du dirulaguntza moduan. Ezinbesteko baldintza izango da jarduera hasi baino lehenago kuota ordaintzea.

Kontu zenbakia: Vital Kutxa 2095 3132 71 1090161877



## 2.2. Irteeretarako izen-ematea honela egin ahal izango da:

### GASTEIZ ALDEA

Arabako Mendi Federazioan, irteeraren aurreko osteguneko 18:30ak baino lehenago. Ordainketaren ordainagiria eraman beharko da.

Faxeaz (945 133 702) edo emailaz (amf@amf-fam.org) osteguneko 18:30ak arte. Ordainketaren ordainagiria eraman beharko da. E-mail bidez

### LAUDIO ALDEA

Izen-emateak GOKOGANE M. T.aren lokaletan (Araba kalea 2, solairuarte, LAUDIO) egingo dira, irteeraren aurreko astearteko 21:00ak arte.

Partehartzaile bakoitzaren izenemateko kuota 2 eurokoa izango da eta izenemateko egiteko unean ordaindu beharko da.

### AMURRIO ALDEA

Izen-emateak MENDIKO LAGUNAK M. T.aren lokaletan (Jose Picaza kalea, solairuarte 3, , AMURRIO) egingo dira, irteeraren aurreko astearteko 21:00ak arte.

Partehartzaile bakoitzaren izenemateko kuota 2 eurokoa izango da eta izenemateko egiteko unean ordaindu beharko da.

## 3.- IZENA EMANDAKOEN GEHIENEZKO KOPURUA

Erakunde bakoitzetik nahi adinak eman dezakete izena.

## 4.- JARDUERARA EZ ETORTZEA

Parte hartzaile bat edo gehiago jarduerara ez azaltzekotan, ez da itzuliko jarduerarako izena emateko ordaindutako kuota.



## 5.- IRTEERA ORDUAK

### GASTEIZ ALDEA

Irteerak egutegian adierazitako larunbatetan egingo dira, 9:00etan, Mendizorrotzeko aparkalekutik.

### LAUDIO ALDEA

Irteerak egutegian adierazitako egunetan egingo dira, 8:30ean, Zumalakarregi hiribidetik (z/g, Laudio). (institutuko aurrekaldean dagoen bus geltokia)  
Beste udalerrri batzuetatik egiten diren irteeretarako, joan-etorrien arautegia aplikatuko da.

### AMURRIO ALDEA

Irteerak egutegian adierazitako egunetan egingo dira, 8:30ean, Amurrioko Telefonica eraikuntzaren aparkalekutik  
Beste udalerrri batzuetatik egiten diren irteeretarako, joan-etorrien arautegia aplikatuko da.

## 6.- DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria